

Laneko arriskuen
gaineko galderak
eta erantzunak

LAN AUTONOMOAN



AUTONOMOAK

*Laneko arriskuen aurrean
babesten bazara, zure
negozioak iraunen du*

LANGILE AUTONOMOAK


1. Zein dira nire betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketari dagokionez?

- Kontratupeko langilerik ez duzunean eta lantokian beste autonomo eta/edo enpresa batzuekin batera ez bazabiltza, EZ duzu prebentzioaz arduratuko den antolaketa baten beharrik, ez eta ere arriskuen ebaluazio baten edo arriskuen prebentziorako plan baten beharrik.
- Ez duzunean kontratupeko langilerik, baina beste autonomo eta/enpresa batzuekin batera zabiltzanean, informazioa trukatu beharra duzu, lankide dituzun enpresa horietako langileendako beraien jarduera edo ekipoeak sor ditzaketen arriskuei buruz, eta jarduketak koordinatu behar dituzu.
- Kontratupeko langileak dituzunean, laneko arriskuen prebentzioko araudiari dagokionez, enpresaburu bilakatzen zara eta, ondorioz, haien betebeharrak eskuratu behar dituzu.

2. Zein da administrazio publikoen zeregina?

Administrazio publikoek prebentzioa sustatzeko eta aholkularitza teknikoa gauzatzeko jarduerak egiten dituzte. Nafarroan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (NOPLOI) Lan Osasunaren Zerbitzuak bere gain du egiteko hori.

3. Nola ezarri behar da laneko arriskuen prebentzioa?



Helburua da prebentzioa produkzio prozesuan txertatzea. "Prebentzioa 10" programa laneko arriskuen prebentzioaren ezarpena modu autonomoan kudeatzen laguntzeko erreminta da. Ahalbidetzen du:

- Jardueraren arriskuak identifikatzea.
- Enpresa jarduerak koordinatzeari buruz dagozkion betebeharrak zein diren ezagutzea.
- Informazio interesgarria eskuratzea laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

4. Arrisku larri eta berehalakoa dagoenean laneko tokia utz dezakezu?

Bai, norberaren bizitza edo osasunerako arrisku larri eta berehalakoa dagoela uste bada jarduera eten eta laneko tokia utz dezakezu.

ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

1. Zein dira langile autonomoaren betebeharrak?

Beharturik dago besteengan sortzen dituen arriskuen gaineko argibideak ematera. Informazioa idatziz emanen da arriskuak larriak edo oso larriak direnean.

Lantoki batean dagoen langile autonomia beharturik dago:

- Kontuan hartzera enpresaburuarengandik jasotako informazioa, hura baita lantokiaren titularra.
- Lantokiko titularrak emandako jarraibideak betetzera.
- Zure kargura langilerik baduzu, laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresaburu bilakatzen zara. Besteak beste, zure betebeharrak izanen dira plantillari prestakuntza eta informazioa ematea laneko arriskuen inguruan eta horiei aurrea hartzeko neurrien edo jardueren inguruan. Orobat, kontsulta egin beharko diezu laneko segurtasunari eta osasunari eragiten dieten aferei buruz eta haien parte-hartzea ahalbidetu beharko duzu. (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 18. eta 19. art.). Bere osasun egoera aldian-aldian zaintzen dela bermatuko die, lanak dituen berariazko arriskuen arabera. (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikulua).

2. Eta zein dira zure eskubideak?

- Eskubidea duzu zurekin lanean ari diren gainerako pertsonak sortzen dituzten arriskuei buruzko informazioa jasotzeko.

- Eskubidea duzu informazioa eta prestakuntza jasotzeko, makinak, laneko ekipoak, materialak edo lanabesak, bezeroak ematen dizkizunak, segurtasunez erabiltzeari begira.

3. Noiz trukatu behar da informazioa?

- Jarduerak hasi aurretik.
- Edozein aldaketa egiten denean, arrisku berriak eragin ditzakeena.
- Larrialdi egoera gertatzen denean.

4. Nola trukatu behar da informazio hau?

- Komeni da laneko arriskuei eta segurtasunari buruzko informazioa aurrez aurre ematea.
- Komeni da jasotako informazioa irakurtzea eta zalantzak dagokion pertsonarekin argitzea.

TRADE (LANGILE AUTONOMOA, EKONOMIKOKI MENDEKOA DENA)

1. Zer da ekonomikoki mendekoa den langile autonomo bat (TRADE)?

Bezero berarendako ohikotasunez irabazi asmoko jarduera ekonomiko edo profesional bat egiten duena eta harengandik bere diru-sarreraren %75 baino gehiago jasotzen duena.

2. Zer baldintza bete behar dira TRADE izateko?

- Produkzio azpiegitura eta material propioak izatea, jardueran aritzeko beharrezkoak eta bezeroak dituenetatik aparte, egin beharreko jardueran ekonomikoki garrantzizkoak badira.
- Ezin dute izan haien kargura besteren konturako langilerik, ez eta ere hirugarrenekin kontraturik edo azpikontraturik egin, kontratatutako lana osorik edo hein batean egiteko.
- Enpresan besteren kontura lan egiten duten gainerako langileetatik bereiz lan egitea.
- Aldi baterako ezintasunagatik kotizatu behar dute kontingentzia arruntengatik eta baita ere lanbide kontingentziengatik.
- Jardueraren arriskua eta mentura bere gain hartu beharko dute.

3. Baldintza horiek eskatzekoak dira garraioaren sektorean?

Ez. Jardueran aritzeko bitarteko propiorik ez bada ere, bezeroarengandik antolakuntza irizpideak jasotzen ez badira ere edo haien jarduera egiten bada enpresa kontratatzaileko gainerako langileengandik bereizi gabe, langilea TRADEtzat har daiteke.

4. Baldintza horiek eskatu ahal zaizkie agente komertzialei?

Ez zaie eskatzen eragiketen arriskua eta mentura beraien gain hartzea.

5. Zer egin behar da TRADE izateko?

- Enpresarekiko mendekotasunaren berri eman eta kontratu bat formalizatu idazki baten bidez, Estatuko enplegurako bulego publiko batean erregistratu beharko dena, sinatu eta ondoko hamar egun balioduneko epean. Bezeroari erregistroaren berri emanen zaio, gertatu eta bost egun balioduneko epean.
- Erregistro horrek ez du izaera publikorik. Kontratua sinatu ondotik hamabost egun baliodun iragan badira eta mendeko langile autonomoak ez badu erregistratu, bezeroak egin beharko du Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan, hurrengo hamar egun baliodunetan.

6. Kontratuan zehazten dira iraupena eta lanaldia?

- Kontratuan ez bada iraupena adierazten, mugagabeko kontratatut hartuko da.
- Kontratuak urteko lanaldia zehaztuko du.

7. Zein autonomo ezin dira hartu TRADEtzat?

Merkataritzako eta industriako lokalen titularrak, ofizina eta bulegoetakoak, jendea hartzen dutenak. Ez eta ere beste batzuekin batera elkarre araubidean edo beste edozein modu juridikoren babesean diharduten profesionalak.

8. Zein dira TRADEek dituzten eskubideak?

- Mendeko autonomoaren kontratua formalizatzea idatziz.
- Urtean gutxienez 18 egun baliodunetz atsedeen hartzea.

- Ordezkari sindikalak hautatzea enpresa kontratatzailearekiko. Lanean babesik gabe sentitzen denak enpresa nagusiko prebentzioko ordezkarien laguntza eskatzen ahalko du.
- Nahi duen sindikatuan afiliatzea, bere interesak defendatu eta ordezkatu dituen horretarako eratutako organoetan eta beste edozein esparrutan.
- Eragindako kalteen ordaina jasotzea, bezeroak kontratua betetzen ez duenean horretarako justifikaziorik gabe.
- Lan arloko jurisdikziora sarbidea izatea.
- Bizia edo osasuna arrisku larrian edo berehalakoan badaude, eskubidea dute jarduera eten eta laneko tokia uzteko, gainerako plantillari horren berri emateko eta bezeroaren langileen ordezkariarengana edo prebentzioko ordezkariarengana joateko.

ERAIKUNTZA

1. Zein dira zure betebeharrak eraikuntzaren sektorean?

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian jasotakoak betetzea:
 - o Segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak eraikuntza obretan (urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuko IV. eranskina).
 - o Laneko ekipoak erabiltzea (uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua).
 - o Norbera babesteko ekipamendua hautatu eta erabiltzea (maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua).
- Obraren Segurtasun eta Osasun Planean ezarritakoa betetzea.
- Enpresa jarduerak koordinatzeari buruz dagozkion betebeharrak betetzea.
- Obra gauzatzen den bitartean, segurtasun eta osasun arloko koordinatzailearen jarraibideak betetzea.

2. Zer hartu behar dut kontuan Azpikontratazioari buruzko Legeari dagokionez?

Langile autonomo batek ezin izanen du berari agindutako lanik azpikontratatu. Lanak agintzen

dizkion enpresak zaindu beharko du Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko araudia betetzen duela.

3. Segurtasun eta osasun plan bat prestatzeko betebeharra dute?

Ez dute hura prestatzeko betebeharririk; kontratistaren erantzukizuna da hori.

Sustatzaileak zuzenean langile autonomoak kontratatzen dituenean obra bat edo haren lan jakin batzuk egiteko, langile haien kontratista izanena da eta betebeharrak bere gain hartu beharko ditu.

Aurreko paragrafoko edukia ez da aplikatuko kontratazioa familia-buruak bere etxebizitzarako egiten duenean.

4. Behartuta daude Baimendutako Enpresen Erregistroan izena ematera?

Izena eman beharko dute eraikuntza obra batean kontratatutak izan nahi duten eta langileak beren kargu dituzten autonomoek.

Ez dutenean langile kontrataturik ez dute izenik eman behar.


5. Behartuta daude eraikuntzako hitzarmeneko 20 orduko prestakuntza egitera?

Ez daude behartuak, baina posible da kontratatzen duen pertsonak baldintza gisa eskatzea, obrara sartzeko.

6. Zer egin behar da lantokian amiantoa izan dezakeen materialik aurkituz gero?

Materiala ahalik eta gutxien manipulatzeko prebentzio neurririk onena da amianto-zuntzekiko esposizioaren arriskua saihesteko. Beraz, honako hau egin behar duzu:

1. Egiten ari zarena bertan behera utzi.
2. Kontratistari edo lokalaren jabeari abisatu, eraikinaren edo instalazioaren gainean duten informazioarekin, kanpoko langileen laguntzarekin, benetan amiantoa den edo ez baloratzeko.
3. Dena dela, haietan jarduteagatik, materiala hautsi edo hondatu bada:



- Babes zaitez, partikuletarako maskara iragazkiduna, 5 motako babes-arropa eta babes mekanikoko eskuzorroak erabiliz.
- Babes itzazu gainerakoak segurtasun-perimetroa ezarriz, sartzeko debekua seinalizatuz eta, orobat, sortutako hondakinak ahalik eta gutxien heda daitezen galaraziz (ez zapaldu, ez pasa erratzik, ez ukitu).

GOGOAN HARTU:

Amiantoa agente kimiko toxikoa da eta eritasunak eragin ditzake, hala nola asbestosia edo pleurako minbizia. Amiantoa duten materialak modu desegokian tratatuz gero, zu zeu arriskuan jar zaitezke, baita, aldi berean edo gero, amiantoa dagoen tokian ibili direnak ere.

Badira lan hauek segurtasunez egin ditzaketen enpresa espezializatuak. Horretarako, amianto arriskua duten enpresen erregistroan izena emanda egon beharko dute eta lanak egin beharko dituzte agintari eskudunek onetsitako lan planen arabera.

Eskura duzu kontsultetarako gure **postontzia** (langile autonomoen kontsultak).

NOPLOIra jo dezakezu laguntza edo dokumentazioa behar izanez gero.



NOPLOI

Tel.: 848 423 766

Landabengo industrialdea,

E eta F kaleak

31012 Iruña

www.insl.navarra.es

Nafarroako Osasun
Publikoaren eta Lan
Osasunaren Institutua



Instituto de Salud
Pública y Laboral
de Navarra